



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGP-K 8 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO INBERTSIOAK ADJUDIKATU DITU METRO BILBAON

• Garrantzitsuenen artean honako hau azpimarratu beharra dago: Aginte Postu Zentralizaturako Aginte Postu Erreduantearen lizitazioa, 2.400.000 eurokoa. Basaurin, Arizeko kotxe-tokien instalazioek ekipamendu berri hori hartuko dute. Horren bidez, metroaren sistema guztien operazioak kontrolatuko dira Nafarroa kaleko 2. zenbakian dagoen zentrolean gertakari larriren baten ondorioz zentrala erabili ezin den kasuetan.

Bilbon, 2017ko urriaren 31n

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) Kontseilu Nagusia eguerdian bildu da Bilboko bulegoan eta Metro Bilbaon 8 milioi euro baino gehiagoko inbertsio batzuk adjudikatzea erabaki du. Garrantzitsuenen artean azpimarratzekoak dira: Aginte Postu Zentralizaturako Aginte Postu Erreduantearen hornidura, 2.400.000 euroko zenbatekoagatik eta 24 hilabeteko egikaritze-epearekin; Ibarbengoa-Larrabasterra tartean trenbidea berritzea, 1.818.000 euroko zenbatekoagatik (16 hilabete); lehenengo tren aleen bidaiarientzako atak egokitzea (500. seriea), 1.245.000 euroko zenbatekoagatik (48 hilabete); katenaria mantentzeko dresina bat hornitzea, 1.200.000 euroko zenbatekoagatik (12 hilabete); tren-gurpilak eta material osagarria profilatzen tornu berri bat hornitzea, 1.036.000 euroko zenbatekoagatik (12 hilabete), eta Lutxanako azpiestazioaren estalkia ordezkatzeko, 332.000 euroko zenbatekoagatik (4 hilabete).

Inbertsioek zertan datzaten

-Metro Bilbaoko Aginte Postu Zentralizaturako Aginte Postu Erreduantea Basauri udalerriko Arizeko kotxe-tokietako instalazioetan kokatuko da. Horren bidez, metroaren sistema guztien operazioak kontrolatuko dira, Bilboko Nafarroa kaleko 2. zenbakian dagoen Postu Zentrolean gertakari larriren baten ondorioz zentrala erabili ezin den kasuetan.

Gaur egun, Bizkaiko Garraio Partzuergoa katigamendu desberdinen arteko komunikazioak modernizatzeko lehenengo fasea egikaritzen ari da (400.000 euro), hartara, orain arte bezala postu bat urrutitik kontrolatu beharrean, hainbat postu batera kontrolatu ahal izateko, behin erreduantea funtzionatzen hasten denean. Lan horien lehenengo fasea 2018. urtean egikarituko da.

-Dresina berria bideetatik zirkulatzen duen katenaria mantentzeko makina espezifiko bat



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

da. Modu jarraituan erabiliko da urteko gau guztietan zuzentzeko eta prebentziozko mantentze-lanak garatzeko, bai eta Metro Bilbaoren azpiegituran sortzen diren beste betekizun batzuetarako laguntza-zerbitzuetarako ere. Berezia da, bi bidetakoa baita, eta gomazko gurpilekin errepidetik zirkulatu ahal izango du, baina baita trenbidetik ere ohiko *diplorys* direlakoekin.

-Egokitu beharreko ateei dagokienez, guztira 500 serieko bost bagoiko 13 tren-unitateren eta lau bagoiko 11 tren-unitateren atea egokitu beharko dira, hau da, 24 ate lau bagoiko konposizioan eta 30 ate bost bagoiko konposizioan (54 ate).

-Urduliz eta Larrabasterra metroko geltokien arteko trenbide-plataformaren tartea berritu eta Urduliz-Plentziakoa hobetu ostean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak Larrabasterra geltokitik Ibarbengoara joateko lanei ekingo die. Obrek honako hau hartuko dute barne: trenbidearen plataforma berritzea (horrek balastoa edo harria aldatzea dakar), egoera txarrean dauden trabesak nahiz erreia berritzea, eta oinarri-azpia murriztea galiboa nahikoa ez denean. Halaber, bai plataformaren drainatzea, bai trenbideko ekipoen kokapena hobetuko dira. Hobekuntza horrek trenbidearen sestra jaiste eta bide-trazadura hobetzea hartuko du barne, betiere trenaren segurtasuna mantenduz eta bidaiarien erosotasuna areagotuz. Ez da horren jarduketa garrantzitsurik egin Metro Bilbao abian jarri zenetik, 1995. urtean.

-Sopelako kotxe-tokiek izango duten tornu berriari esker tren-unitateen gurpilaren profilaren eta material osagarriaren profilaketa optimizatuko da. Makina horrek, *software*aren bidez, unitate guztien gurpilak profilatuko ditu eta bibrazioak zuzenduko ditu. Gauzak horrela, bidaien erosotasuna zein segurtasuna handituko dira, baita tren-unitateen mantentze-lanak optimizatu ere.

-Nabarmendutako inbertsio horien guztien testuinguruan, Lutxana azpiestazioan beste estalki bat eraikiko da. Azpiestazioa Eusko Trenbideen antzinako lineako eraikin batean kokatuta dago; haren teilatua narriatuta zegoen eta metroak behar bezala funtzionatzeko funtsezkoa den elementuetako bat estaltzen du.

Barik txartelaren kanpoko merkaturatze-sarea

Bestalde, Bizkaiko Garraio Partzuergoak Barik txartela saltzeko, biltzeko, laguntzarekin kargatzeko, biltegitratzeko eta banatzeko kanpo-komertzializazio sare bat ezartzeko eta ustiatzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea onetsi du. Hau da, tabako-dendetan, kioskoetan, tokiko saltokietan eta abarretan egin ahal izatea; izan ere, hiriguneetatik kanpoko lekuetan eta landa-eremuetan 2016. urteko kargatzen zenbatekoa 20 milioi eurotik gorakoa izan zen.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Centro Tecnológico en Logística Integral fundazioarekin

Azkenean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak onetsi du Kantabriako Centro Tecnológico en Logística Integral fundazioarekin zuen lankidetzaren hitzarmena luzatzea, Kantabriako Gobernuaren mende dagoen entitateak hala eskatu eta gero. Hitzarmenaren xedea da Kantabriako garraio publikoan kontakturik gabeko txartela ezartzen laguntzea eta partzuergoaren esperientziaren berri ematea. Hitzarmen horren bitartez, BGP lankidetzan arituko da Bizkaiko ereduaren antzeko beste bat ezartzeko hainbat alderdiri dagokionez: eskema, ezaugarriak, garapena, teknologia, zehaztapenak...